



Patxi Álvarez de los Mozos (Sj): “Gizateriaren arazoek irtenbidea dute guztion artean aurre eginez gero”.

Bilbo (1967). Hegoaldeko herriek bizi duten egoera ondo baino hobeto ezagutzen du. Donostian ospatu berri den Bidetik-en -Pastoral Soziokaritatiboaren topaketa (Osasun eta Espetxe Pastoralta, eta CARITAS GIPUZKOA)- hitzaldia eman zuen.

“Hautsita dagoen mundu batean Itxaropena bizi” izan zen eman zenuen hitzaldiaren izenburua. Hori, posible al da?

Bai, noski. Mundua etengabe aldatzen ari da, une oro nobedadeak ereiten ditu. Sormenez, gorputz eta arimaz, irrikaz... beteriko pertsonak daude. Horrez gain, Jainkoa gure aldamenean dugula dakigu. Mundu hautsia da baina esperantza dugu.

Esperantza hori, nolakoa da? Lehen sorospenetakoa?

Hori baino gehiago da. Eraldaketa da; aldaketa; elkartasunari aukerak zabaltzea da. Gizarte mugimendu berriei; harrera egiteari; gizartea pentsatzeko era berriak. Eraldaketa esan nahi du. Frantzisko Aita Santuak esaten duen bezala “benetako Iraultza Kulturala” da.

“Iraultza Kultural” horretan parte hartzeko, zer ezaugarri bete behar dira?

Errealitatea auskultatu behar da. Barrutik begiratu behar da. Ez kanpoko ikusle bezala errealitatean inplikaturik baizik. Eskuak saltsan sartu behar dira, zikindu, busti, baztertuenekin egon, lagundu, errukia izan... Aldatu.

Pertsonak batera eta bestera dabiltzan –asko eta asko gogoz kontra-errefuxiatuak... mundu aztoratu batean bizi gara. Ikuspegia ez da batere baikorra esperantzari eusteko.

Egia da. Halere, mundu hau oso anitza da. Errealitate asko daude: oso positiboak, eta baita iluntasun eta minez beteak ere. Duintasuna eta justiziaren alde egiten dugu lan. Batik bat, azkenekoen alde.

Zertan datza “Elefantearen Kurba”k?

Hiru errealitatetan oinarritzen da. Bat: hein batean, txiroen egoerak neurri batean hoberantz egin du. Badira muturreko pobrezian egon, eta euren errealitateak hobetzerantz egin dutenak. Bi: herrialde garatuetan Erdiko mailan dauden pertsonen egoerak, okerrera egin du. Eta egungo hirugarren ezaugarria: munduko aberatsen %1a, are aberatsagoa da.

Eta ikuspegi hain zalantzarriaren aurrean, esperantza eustearen aldekoa al zara?

Bai. Uste dut esperantza, gizateria bezala, giza-espezie bezala... bidelagun dugula. Eta baita kristau bezala ere. Jesus gurutze iltzatuan oinarritzen da gure esperantza. Nola ez da esperantzarik egongo ba?

Gaur egun “Salba dadila ahal duena” bezalako jokabide ezberdinak ikusten ditugu. Zein da zure joera?

Ez da hartu dudana bidea, ezta aldarrikatzen dudana ere, baina aukera bat da pertsona askorentzat. Elkartasunaren bidea aldarrikatzen dut: salba gaitezen guztiok. Gizateriaren arazoei irtenbidea dute guztion artean aurre eginez gero.

Prentsako albisteei begiratu bat emanez gero, gehienak ezkorrak dira. Ez da erraza esperantzazko argi izpi bat ikustea. Ur-lasterren aurka borrokatzea al da?

Azken urteotan munduko hamaika bazter ezagutu ditut. Eta egon naizen leku bakoitzean, esperantza zuten pertsonak ikusi izan ditut nahiz eta egoera zailak bizi izan; sufrimendua... Leku eta pertsonak, kanpotik begiratuz gero, itxuraz oso zail dutela pentsatu. Esperantza asko ikusi dut pertsona horietan. Txiro askok etorkizunean sinesten dute. Baita nik ere. Hori da jasotzen dudana, eta horrexegatik borrokatu nahi dut.

Zer da ‘Esperantza Profetikoa’?

‘Esperantza Profetikoa’, egungo errealitatearekin kritiko izatea da. Ez da errealitatearekin, den bezalakoa izanda konformatzen. Badaki errealitate hau aldatu egin

behar dela, eta egoera berri bat sortu daitekeela, ezberdina egungoaren aldean. Egoera berri batekin amesten du bere alde amets egin eta borrokatzen baitu.

Esperantza “txiroena dela” adierazi duzu. Ziur al zaude?

Bai. Min askoko lekuetan, pertsonak sufritzen daudenetan, biharko egunik itxuraz ez dagoen lekuetan... aurkitu ahal izan dut. Etorkizunean sinesten duten horietan ikusi ahal izan dut Esperantza. Eta batzuetan gu baino gehiago, eszeptikoagoak baikara; agian nahi izanez gero luxu hori izan baitezakegu.

Zertan datza “Esperantza eraginkorrak”?

Konpromisoarekin du zerikusia. Ez da ikusle jarrera bat, arduratzen den pertsonarena baizik. Konprometitzen denak soilik –orean eskuak sartuz– aldaketaren ezaugarriak antzeman ditzake.

Zer bitaminei esker egiten duzu egunero aurrera?

Askori esker. Otoitzarekin: Jainkoa ondoan dugula, eta errukiorra dela jakinez. Laguntasunarekin: batik bat mundu hobeago baten alde borrokan ari diren pertsonekin. Eta azkenekoekiko hurbiltasuna azalduaz: beraien berri izan, eta beraiekin egonaz.